

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/040

Izenburua: HERRI LAN ETA HIRIGINTZAKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Datak: 1937-1987

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 2.538 instalazio unitate

Sortzailea: HERRI LAN ETA HIRIGINTZAKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Erakundearen historia:

Etxebizitza Ministerioa 1957ko otsailaren 25eko Lege Dekretuaren bidez —Estatuko Administrazio Zentrala berrantolatzeari buruzkoa— sortu zen, "Etxebizitzaren, arkitekturaren eta hirigintzaren arloko nazioko arazoak konpontzeko ardura duten erakundeak elkartzeko". Ministerio berrian sartu ziren Etxebizitzaren Institutu Nazionala (ordura arte Lan Ministerioaren mendekoa), Arkitektura eta Hirigintza Zuzendaritza Nagusia (Gobernazio Ministerioaren mendekoa) eta Hondatutako Eskualdeen Zuzendaritza Nagusia; gainera, etorkizunean sartzea komenigarritzat jotzen zirenentzat zabalik zegoen. Halaber, Hiri Jabetzaren Ganberak, ordura arte Lan Ministerioaren mende, Etxebizitza Ministerioaren mende gelditu ziren.

Lehenago, 1936ko abenduaren 20ko Dekretuaren bidez, Etxebizitzako Fiskal kargua sortu zen; haren eginkizunak osasun arloari, osasungarritasunari eta jendea bizi zen lokalen higiegi baldintzei buruzko guztiari zegozkion. 1937ko otsailaren 4ko Araudiak —1940ko azaroaren 23ko Erregelamenduak aldatua— Etxebizitzako Fiskaltza antolatu eta Fiskal-Probintzia Ordezkararen figura sortu zuen. Etxebizitza bat alokatu ahal izateko alde zureko aurreko urrats gisa, jabea Bizigarritasun Zedula erostera behartzen zitzaion (1939ko maiatzaren 25eko Agindua). Betebehar hori, handik gutxira, 1943ko irailaren 16ko Aginduaren bidez, giza bizileku gisa balio zuen eraikin orotara zabaltzen zen, edozein zela ere han bizitzeko erregimen edo egoera juridikoa, bai eta titularraren edo jabearen ezaugarriak ere.

1944ko otsailaren 29ko Aginduaren bidez, etxebizitzek bete behar zituzten gutxienezko higiegi baldintzak zehaztu ziren, eta, Osasun Nazionalako Oinarrien azaroaren 25eko Legearen 24. eta 29. oinarrietan, udal zerbitzu sanitarioek etxebizitzaren higiegi baldintzak hobetzeko dituzten eskumenak arautu ziren; ea berean, etxebizitzaren errolda bat osatzeko betebeharrak ezarri ziren eta etxebizitza osasungaitzak adierazi ziren. Horrez gain, bizigarritasun zedulak emateko etxebizitzaren ikuskapena arautu zen. Gerra Zibilaren ondorengo urteetan, suntsipen handia jasandako hiriak berreraiki egin behar izan ziren. Horretarako, eraikuntzako jarduerak sustatzeko ahalgintza egin zen, eta, hori lortzeko, 1944ko azaroaren 25eko Legea egin zen, "Klase ertaina" deiturikoa errenta-etxeak eraikitzeako kontribuzioak eta zergak murrizteari buruzkoa. Haren bidez, "etxebizitza hobaridunen" figura sortu zen. Izen horren zergatia da etxebizitzak eraikitzen edo eraberritzen zituenak zenbait onura izanzen zituela, hala nola 20 urtez kontribuzio eta ariel batzuetan ehuneko laurogeita hamarreko murrizpena. Horren ondorioz, 1948ko apirilaren 14ko Aginduaren bidez aldatu zen; etxebizitza moten sailkapena hiru multzotan mantendu zen, bai eta kontribuzioen eta zergen % 90eko hobaria ere. 50eko hamarkadan, etxebizitzaren garestitasun izugarriak eta landatik hirirako exodoak eraginez, erregimen berriak neurriak hartu zituen etxebizitzaren gabezia hori arintzeko. 1954ko uztailaren 15eko Legearen bidez —"errenta mugatuko etxebizitzak" babesteari buruzkoa—, etxebizitza kategoria hori sortu zen, plan orokorrean barruan kokatua eta Etxebizitzaren Institutu Nazionalak onartua. Helburua zen familia "ekonomikoki ahulen" mesederako etxebizitzak eraikitzea; horretarako, zerga onura eta salbuespen jakin batzuk ezarri ziren eta beren etxebizitzak eraiki nahi zituzten partikularren ekimenak babestu ziren.

Eskumen berri horiei esker, Etxebizitzako Probintzia Ordezkaritzak sortu ziren (1957ko apirilaren 26ko Dekretua), eta Etxebizitza Ministerioaren behin-behineko Erregelamendu Organikoa onartu zen. Horren arabera, probintziako hiriburu bakoitzean Ministerioaren Probintzia Ordezkaritza bat ezarri zen, Arkitekturako eta Etxebizitzako Probintzia Ordezkaritza izena hartu zuena. Ordezkaritza horren eginkizunak ordura arte honako hauei zegozkienak ziren: Etxebizitzaren Institutu Nazionalaren eskualde eta probintzia ordezkaritzak, Etxebizitzako Fiskaltzaren probintzia eta toki ordezkaritzak, Hirigintzako probintzia batzordeak eta Hondatutako Eskualdeen eskualdeko buruzagitzak. Etxebizitza Ministerioaren barne zirkularren bidez erabaki zen Etxebizitzaren Probintzia Fiskaltzek Ministerioaren Probintzia Ordezkaritzetako Bizigarritasun Atala osatuko zutela, eta haren burutza Etxebizitzaren Fiskal Ordezkariek beteko zuela, Ministerioaren Probintzia Ordezkariei menpe.

Madrilgo Gizarte Larrialdietarako Planari buruzko 1957ko azaroaren 13ko Legeak "diruz lagundutako etxebizitzak" figura sortu zuen 1954ko Legean ezarritako errenta mugatuko etxebizitza kategoriararen barruan. Etxebizitza horiek, errenta mugatuko etxebizitzetarako aurreikusitako zerga salbuespenen onurez gain, itzuli beharrik gabeko dirulaguntza jasotzeko eskubidea izanzen zuten. Azkenik, uztailaren 24ko 2131/1963 Dekretuaren bidez —Estatuaren babes ofizialeko etxebizitzak buruzko legearen testu bategina onartzen zuena—, arlo horretan indarrean zegoen legeria guztia bateratu zen, "babes ofizialeko etxebizitzak" figura sortu zen eta ordura arteko legeria ugaria indargabetu zen.

Etxebizitzaren Fiskaltza Nagusia uztailaren 13ko 1994/1972 Dekretuaren bidez ezabatu zen. Dekretu horrek Etxebizitza Ministerioaren egitura organikoa aldatzen zuen eta haren eginkizunak Etxebizitzaren Zuzendaritza Nagusiari eskualdatzen zizkion. 1973ko urtarrilaren 27ko Aginduaren bidez, Etxebizitza Ministerioaren Probintzia Ordezkaritzak eta Ordezkaritza Berezien Erregelamendu Organikoa onartu zen, zeinean zehazten baitziren eraikuntzaren teknologiaren, etxebizitzaren, hirigintzaren, arkitekturaren eta probintzia ikuskaritzaren arloan zituzten eskumenak. 1558/1977 Errege Dekretuaren bidez, Herri Lan eta Hirigintza Ministerioa sortu zen, non Etxebizitza Ministerio zaharraren mendeko organo eta erakunde guztiak sartzen baitziren. 754/1978 Errege Dekretuaren bidez egituratu egin zen, eta, Herri Lan eta Hirigintza Ministerioaren Ordezkaritzak sortzeko esker, zerbitzu periferikoak antolatu ziren. Apirilaren 18ko 821/1980 Errege Dekretuak —Herri Lan eta Hirigintza Ministerioaren Zerbitzu Periferikoetako eginkizunak deskontzentratzeko eta Departamentuaren Ordezkaritza Probintzialen funtzionamenduari buruzkoak— zehaztu zuen zer eginkizun beteko zuten Ministerioaren Ordezkaritzek Estatuko Aurrekontu Orokorren kargurako inbertsioei zegokienez. Apirilaren 1eko 1484/1985 Errege Dekretuaren bidez, Estatuaren eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatu zitzaizkion Nafarroari, arkitektura ondarearen eta eraikuntzaren eta etxebizitzaren kalitate kontrolaren arloetan.

Funtsaren antolamendua:

040.01 ADMINISTRAZIOA

- 040.01.01 Memoriak
- 040.01.02 Estatistikak
- 040.01.03 Txostenak
- 040.01.04 Korrespondentzia
- 040.01.05 Langileen espedienteak
- 040.01.06 Kontabilitateko espedienteak

040.02 ZERBITZUAK

- 040.02.01 Diruz lagundutako etxebizitzak eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke jardueren koordinazioa
- 040.02.02 Diruz lagundutako etxebizitzak sustatzeko baimenak
- 040.02.03 Sustapen pribatuko babes ofizialeko etxebizitzak erosteko laguntzak
- 040.02.04 Obren ziurtagiriak eta etxebizitza babestuen harrera aktak
- 040.02.05 Etxebizitza babestuak esleitzeko kontratuen ikus-onespenak
- 040.02.06 Etxebizitza babestuak erosteko maileguen amortizazioak biltzeko kontuak
- 040.02.07 Etxebizitza libreen obra proiektuen onarpenak
- 040.02.08 Emandako bizigarritasun zedulak
- 040.02.09 Bizigarritasun txostenak

040.02.10 Dagoeneko eraikita zeuden eraikinetan industria txikiak jartzeko eskaerak

040.02.11 Eraikin historikoak zaharberritzeko espedienteak, Herri Lan eta Hirigintza Ministerioak sustatuak

040.03 IKUSKAPENA ETA ZEHAPENA

040.03.01 Landa etxebizitzaren osasun ikuskapena

040.03.02 Etxebizitzaren arloko zehapen-espedienteak

040.03.03 Bizigarritasun arloko zehapen-espedienteak

Sarrera baldintzak:

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.